

**2019ko EKAINAREN 12an UDALBATZARRAK EGINDAKO APARTEKO  
OSOKO BILKURAREN AKTA** **8 zk.**

Zarauzko udaletxeko batzar-aretoan, 2019ko ekainaren 12an, arratsaldeko zazpitan, Udalbatzarra bildu da, egun eta ordu horietarako aurretik deituta zegoen aparteko bilkura egiteko xedez.

Honako zinegotzi hauek bertaratu dira:

<b>Batzarburua</b>	Xabier Txurruka Fernandez jn.
<b>Bertaratutako zinegotziak</b>	Maite Garrastazu and. Jesus Arana Gomez jn. Nekane Iribar Iriondo and. Ixidor Larrañaga Ayerbe jn. Iban San Martin Hernandez jn. Miren Letamendia Belloso and. Jon Andoni Urdangarin Urrutia jn. Iratxe Zorrozuza Eguiazabal and. Mikel Goenaga Gubia jn. Naiara Carvajal Larrañaga and. Iñaki Eizagirre Eizagirre jn. Karmele Alberdi Linazasoro and. Xabier Vazquez Izquierdo jn. Ane Arruti Lopetegi and. Gloria Vazquez Herranz and. Patxi Elola Azpeitia jn. Ana De Benito Sanz and. Oihane Delgado Pita and.
<b>Ez dira etorri</b>	Koldo Uribarri Zenekorta jn. Aitor Korta Etxabe jn.
<b>Idazkaria</b>	Ines Diaz de Villafranca Arzamendi and.
<b>Kontu-hartzailea</b>	Karmele Lizaso Ubera and.

Bilkurari hasiera emanda, **batzarburu** jaunak adierazi du bilkura apartekoa dela eta horren arrazoia dela, hain zuzen ere, agintaldia amaitu aurretik erabaki batzuk hartu beharra.

Ondoren, eguneko aztergaiak aztertu eta eztabaidatu ditu Udalbatzarrak.

## GAI-ZERRENDAA

### **1.- MARIA ETXETXIKI 1A ETA 1B ERAIKINAREN BEHE-SOLAIRUKO BI LOKAL ETXEBIZITZA BIHURTZEKO ORDENANTZAN SARTZEKO ESKAERA. BERRAZTERTZE-ERREKURTSOAA.**

2019H7050004 espedientea

2019ko martxoaren 28an egindako osoko bilkuran, Udalak ezetsi egin zuen Maria Etxetxiki kalea 1 eraikineko bi lokal LOKALAK ETXEBIZITZA BIHURTZEKO UDAL ORDENANTZAREN HIRUGARREN SEKTOREKO ERABILERA KO EGOKIAK EZ DIREN LOKAL ZERRENDAN sartzeko eskabidea.

Lokalen jabeek udal akordioa berraztertze ko errekurtsoa aurkeztu zuten.

Hirigintza eta Ingurumeneko Departamentuak errekurtsoari buruzko txostena egin, eta lehen egindako aurkako txostena berretsi zuen.

Lurraldeko udal informazio-batzordeak irizpena eman ondoren, Udalbatzarrak, aho batez,

### **ERABAKI DU**

Ezestea lokalen jabeek (Jose Manuel Esnal eta Inmaculada Lizarreta) aurkeztutako berraztertze-errekurtsoa, errekurritutako akordioaren arrazoi beretan oinarrituta.

Edonola ere, adierazi behar da hurrengo Udalbatzaren agintaldirako egokia izan daitekeela ordenantza berrikustea eta atarien zerrenda eta behe-solairuetan etxebizitzak ezartzeko egokiak diren atarien eta guneen zerrenda eguneratzea, ordenantzaren hirugarren eta laugarren xedapen gehigarrietan jasotakoaren arabera.

### **2.- 2018. URTEKO KONTU OROKORRA**

2019ko maiatzaren 17an egindako bileran, Udaleko Kontuen Batzorde Bereziak aldeko txostena eman zion 2018. ekitaldiko Aurrekontuaren Kontu Orokorrari.

Kontu orokorra jendaurrean egon zen, 15 eguneko epean, 2019ko maiatzaren 20ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (93 zk.) argitaratutako iragarkiaren bidez; eta ez zen alegaziorik aurkeztu.

Horrenbestez, aipatutako batzordeak hala proposatuta Udalbatzarrak, aho batez,

## ERABAKI DU

Zarauzko Udalaren 2018. urteko Kontu Orokorra onartzea eta, halaber, Herri Kontuen Euskal Epaitegiari eta Gipuzkoako Foru Aldundiari igortzea.

### 3.- INTERESEN ERREGISTROKO AITORPENEN EREDUAK

2019III0004 espedientea

Jarraian EUDELeK eguneratutako Interesen Erregistroko aitorten eredu berri eman du idazkariak. Udalkide berriek kargua hartu aurretik horiek aurkeztu beharko dituzte, 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 75.5 artikuluan eta hamabosgarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera.

Horiek horrela, eta Antolaketakako informazio-batzordeak aldeko irizpena eman ondoren, Udalbatzarrak, aho batez,

## ERABAKI DU

**Lehena.-** Zarauzko Udaleko Interesen Erregistroko aitorten eredu berri hauek onartzea: ONDARE-ONDASUNEN AITORPENA eta BATERAEZINTASUN-KAUSEN ETA JARDUEREN AITORPENA; eta hori, hauekin bat etorriz: , 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 75.5 artikuluan jarritakoa, eta 19/2013 Legeak, abenduaren 9koak, Gardentasunari, Informazio Publikoa Eskuratzeko Bideari eta Gobernu Onari buruzkoak, 8.1.h) artikuluan xedatutakoa.

Eredu hauek onartzen dira:

- ONDARE-ONDASUNEN ETA -ESKUBIDEEN AITORPENA (Ondare-ondasunen Erregistroa)
- BATERAEZINTASUN-KAUSEN ETA DIRU-SARRERAK EMATEN DITUZTEN EDO EMAN DITZAKETEN JARDUEREN AITORPENA (Jardueren Erregistroa).

**Bigarrena.-** Interesen Erregistroko aitorten aurreko ereduak baliorik gabe uztea (Udalbatzak 1999ko ekainaren 24ko ekainean onartutakoak).

### ONDARE-ONDASUNEN AITORPENA

#### I.- AITORTZAILEA

IZEN-ABIZENAK				
KARGUA		UDALERRIA		LURRALDEA
AITORPENAREN DATA			TOKI-AGINTALDIA	
AITORPEN-MOTA	KARGUA HARTZEA	KARGUA UZTEA AGINTALDIA	URTEKOA	ALDAKETA

	☒	BUKATZEN DELA ETA ☒	☒	☒
--	---	---------------------------	---	---

## II.- ONDARE HIGIEZINA

MOTA	PARTAIDETZA (%)	KATASTROKO ERREF.	AZALERA	ESKURATZE-DATA	ESKURATZE- TITULUA

Ezer ez aitortzeko atal honetan

## III.- SOZietateetako Partaidetzak

IZENA	ESKURATZE- DATA	PARTAIDEZAREN BALIOA (eurotan)/ VALOR DE LA PARTICIPACIÓN (en €)	PARTAIDETUTAKO SOZietateak SOCIEDADES PARTICIPADAS POR ELLA

Ezer ez aitortzeko atal honetan

## IV.- BANKU-GORDAILUAK, AKZIOAK, INBERTSIO-FUNTSAK, POLIZAK, ASEGURUAK EDO BESTE BATZUK

	IZENA	TITULARTASUNA (%)	BALIOA (€)
Banku-kontuetako batezbesteko saldoa, guztira			
Inbertsio-funtsak			
Bizi-aseguruak			
Zor publikoaren tituluak			
Obligazioak eta bonuak			
Aldi baterako eta biziarteko errentak			
Pentsio-plana			
Beste batzuk			

Ezer ez aitortzeko atal honetan

## V.- ZERGEN LIKIDAZIOAK

	EKITALDIA	TITULARTASUNA (%)	LIKIDAZIOA
Errenta			
Ondarea			
Sozietateak			

Ezer ez aitortzeko atal honetan

## VI.- BESTE ONDASUN ETA ESKUBIDE BATZUK

MOTA	ONDASUNAREN/ESKUBIDEAREN DESKRIBAPENA	ESKUBIDEAREN TITULARTASUNA (%)	BALIOA (€)
Zor-agiriak eta gordailu-ziurtagiriak			
Administrazio-emakidak			
Egile-eskubideak			
Beste batzuk			

Ezer ez aitortzeko atal honetan

## VII.- IBILGAILUAK, ONTZIAK, AIREONTZIAK, BITXIAK ETA ARTELANAK

DESKRIBAPENA	ESKURATZE-DATA	MARKA ETA MODELOA EDO ZALDI FISKALAK	BALIOA (€)

Ezer ez aitortzeko atal honetan

## VIII.- ZORRAK

DESKRIBAPENA	KONTRATATZE-DATA	TITULARTASUNA (%)	BALIOA (€)

Ezer ez aitortzeko atal honetan

Apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 75.7 artikuluan xedatutakoa betetzeko (maiatzaren 28ko 8/2007 Legearen Bederatzigarren Xedapen Gehigarriak emandako idazketaren arabera), goian bere nortasun-datuak agertzen dituen aitortzaileak **ondare-ondasunen eta -eskubideen** aitortpen hau egiten du, ..... orrialdetan jasota, eta bere erantzukizunpean adierazten du datuak erabat egiazkoak direla.

.....(a)n, 2019ko .....aren .....(e)(a)n

IDAZKARI NAGUSIA

*Nire aurrean,*

Iz.: ..... JAUNA/ANDREA  
ZARAUZKO UDALEKO (KARGUA)

## BATERAEZINTASUN-KAUSEN ETA JARDUEREN AITORPENA

### I.- AITORTZAILEA

IZEN-ABIZENAK		
KARGUA	UDALERRIA	PROBINTZIA

AITORPENAREN DATA			TOKI-AGINTALDIA	
AITORPEN-MOTA	KARGUA HARTZEA	KARGUA UZTEA	URTEKOA	ALDAKETA
	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>

## II.- EGITEN DUEN INTERES-AITORPENA

### A. HAUTESKUNDE-ARAUBIDE OROKORRAREN LEGE ORGANIKOKO 177. ETA 178. ARTIKULUETAKO BATERAEZINTASUN-KAUSAK

BATERAEZINTASUN-KAUSAK (aipatu, halakorik balego, erantsitako koadroaren arabera).

- Ezer ez aitortzeko atal honetan

### B. DIRU-SARRERAK EMATEN DITUZTEN EDO EMAN DITZAKETEN JARDUERAK

	ERAKUNDEA	KARGUA/KATEGORIA	ERREGIMENA	HASIERA/UZTE-DATA/
Sektore publikoan				

- Ezer ez aitortzeko atal honetan

	DESKRIBAPENA	ERAKUNDE/ELKARGO PROFESIONALA	KARGUA EDO KATEGORIA	HASIERA/UZTE DATA
Norberaren edo besteren kontura	Merkataritza, industria, lanbide arloko jarduerak			
	Okupazio, lanbide-jarduerak			
	Besteren konturako jarduerak			

- Ezer ez aitortzeko atal honetan

### C. SARRERA PRIBATUAK SOR DITZAKETEN BESTE JARDUERA BATZUK/

DIRU-SARRERAK EMATEN DITUZTEN EDO EMAN DITZAKETEN ETA/EDO BATERAEZINTASUNA ERAGIN DEZAKETEN BESTE JARDUERA BATZUK (deskribapena)		HASIERA/UZTE-DATA FECHA INICIO/CESE
<input type="checkbox"/> Lankidetzako prestakuntza-jarduerak		
<input type="checkbox"/> Beste batzuk		

- Ezer ez aitortzeko atal honetan

Apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 75.7 artikuluan xedatutakoa betetzeko (maiatzaren 28ko 8/2007 Legearen Bederatzigarren Xedapen Gehigarriak emandako idazketaren arabera), goian bere nortasun-datuak agertzen dituen aitortzaileak **bateraezintasun-kausen eta diru-sarrerak ematen dituzten edo eman ditzaketen jardueren** aitorten hau egiten du, ..... orrialdetan jasota, eta bere erantzukizunpean adierazten du datuak erabat egiazkoak direla.

.....(a)n, 2019ko .....aren .....(e)(a)n

Nire aurrean,

IDAZKARI NAGUSIA

Iz.: .....

ZARAUZKO UDALEKO

JAUNA/ANDREA  
(KARGUA)

Eta aztertzeke besterik ezean, batzarburu jaunak hala aginduta, bilkurari amaiera eman diote, arratsaldeko zazpiak eta hamarrean, eta nik, idazkariak, horren guztiaren fede ematen dut.